ALEKO

NEKAZARITZA TEST GUNEA

ESPACIO TEST AGRARIO

CROPS 4LIFE

CONSUME AGROLOCAL, NATURA ZAINDU

Co-funded by the European Union









LANDA EREMUAN ARITU NAHI DUZU, BAINA PROFESIONALIZATZEAK BELDURRA EMATEN DIZU?

MODU KOLEKTIBOAN ETA MANEIU BIRSORTZAILEEKIN EKITEKO INTERESA DUZU?

ALEKO NEKAZARITZA TEST GUNEA DA ZURE AUKERA!

¿QUIERES DEDICARTE AL AGRO, PERO TE DA MIEDO EL SALTO A LA PROFESIONALIZACIÓN?

¿TE INTERESA HACERLO DE FORMA COLECTIVA Y BAJO MANEJOS REGENERATIVOS?

¡ALEKO ESPACIO TEST AGRARIO ES TU OPORTUNIDAD!

ZER DA NEKAZARITZA TEST GUNE BAT?

Nekazaritza test gune bat nekazaritza alorreko ekintzailetza progresiboa errazten duen programa bat da, elikagaien ekoizpenean ideia berritzaileak, bideragarriak eta iraunkorrak praktikan jarri nahi dituzten pertsonei zuzendua.

Nekazaritza test gune bakoitza desberdina da, baina baliabideak, ezagutzak, merkaturatze-sareak eta, batez ere, aholkularitza eta gertuko laguntza ematen dizkiete sektorean (nekazaritzan, abeltzaintzan edo basogintzan) hasten diren pertsonei.

Informazio gehiago Red de Espacios Test Agrarios webgunean www.espaciostestagrarios.org

¿QUÉ ES UN ESPACIO TEST AGRARIO?

Un espacio test agrario es un programa que facilita la instalación progresiva en el agro a personas con poca vinculación o experiencia en el sector, que buscan poner en práctica ideas innovadoras, viables y sostenibles en la producción de alimentos.

Cada espacio test agrario es diferente, pero pueden facilitar recursos, formación, redes de comercialización y, sobre todo, asesoramiento y acompañamiento cercano a personas que se están iniciando en el sector, bien sea en agricultura, ganadería o forestal.

Más información en la Red de Espacios Test Agrarios www.espaciostestagrarios.org

ZER DA ALEKO NEKAZARITZA TEST GUNEA ?

ALEKO Gasteizko Nekazaritza Test Gunea da, sendotze-fasean dagoena, CROPS4LIFE proiektu europarraren barruan ekimen pilotu gisa hasi ondoren www.vitoria-gasteiz.org/crops4life .

ALEKOk profesionalizazio-ibilbide bat eskaintzen du sektorean, eta hiru fase ditu: formakuntza, praktikak eta laguntza. Formakuntza eta praktikak garatzen diren finkak ditu, ekoizpen-orientazio desberdina duten bi kokapenetan:

- Basaldea, Nekazaritza Agroekologikoko Enpresen Zentroa – baratzezaintza biointentsiboa
- Monasterioguren – dibertsifikatutako ekoizpena

ALEKOk sektorera hurbiltzen zaitu agroekologiatik, praktika birsortzaileetatik eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ikuspegitik (*), ibilbide honen amaieran, eta hala nahi izan ezkero, zure kontura edo modu kolektiboan ekin ahal izateko.

(*) **Ekonomia Sozial eta Solidarioak** pertsonen ongizatea jartzen du ekonomiaren erdigunean, baliabideak, aberastasuna, ekoizpena eta kontsumoa jartzen ditu helburu hori lortzeko bitarteko huts gisa.

¿QUÉ ES ALEKO ESPACIO TEST AGRARIO?

ALEKO es el Espacio Test Agrario de Vitoria-Gasteiz que está en fase de consolidación, tras su inicio como iniciativa piloto dentro del proyecto europeo CROPS4LIFE www.vitoria-gasteiz.org/crops4life .

ALEKO ofrece un itinerario de profesionalización en el sector que consta de tres fases: formación, prácticas y acompañamiento. Dispone de fincas en donde se desarrolla la formación y las prácticas en dos ubicaciones con diferente orientación productiva:

- Centro de Empresas Agroecológicas, Basaldea – horticultura biointensiva
- Monasterioguren – producción diversificada

ALEKO te acerca al sector desde la agroecología, las prácticas regenerativas y desde una perspectiva de Economía Social y Solidaria (*), para que al final de este itinerario, y si así lo deseas, puedas emprender, por tu cuenta o de manera colectiva.

(*) La **Economía Social y Solidaria** pone en el centro de la economía el bienestar de las personas, situando los recursos, la riqueza, la producción y el consumo como meros medios para alcanzar tal fin.

NOLAKOA DA PRESTAKUNTZA-FASEA?

Prestakuntza teoriko-praktikoko 1. Fasea 2027ko otsailaren 1etik eta ekainaren 29ra bitartean egingo da, eta sei nekazaritza-ekosistema birsortzaile ezagutu eta horietan lan egiteko hainbat modulu izango ditu, 421 eskola-ordura arte.

Baratzezaintza biointentsiboari buruzko prestakuntza Soilik kooperatibak ematen du Nekazaritza Agroekologikoko Enpresen Zentroa, Basaldean.

Beste nekazaritza-ekosistemetako prestakuntza (baratzezaintza estentsiboa, lehorreko baratzezaintza estentsiboa, frutikultura, abeltzaintza dibertsifikatua eta basozaintza bidezko baso-kudeaketa) Sustraiak Habitat Design kooperatibak ematen du, Olarizuko Etxaldean saio teorikoak eginez. Saio praktikoak, berriz, Monasteriogureneko kontzejuko finka ezberdinetan egiten dira.

Prestakuntzak enpresak sortzeko modulu bat barne hartzen du, ekintzailetza-prozesuaren lehen urratsak ezagutzeko.

¿CÓMO ES LA FASE DE FORMACIÓN?

La Fase 1 de **formación teórico-práctica** se desarrollará entre el 1 de febrero y el 29 de junio de 2027, con diferentes módulos para conocer y trabajar en seis agroecosistemas regenerativos, hasta un total de 421 horas lectivas.

La formación en horticultura biointensiva la imparte la cooperativa Soilik en el Centro de Empresas Agroecológicas, Basaldea.

La formación en los otros agroecosistemas (horticultura extensiva, extensivos de secano, fruticultura, ganadería diversificada y gestión forestal mediante silvopastoreo) la imparte la cooperativa Sustraiak Habitat Design con sesiones teóricas en la Casa de la Dehesa de Olarizu, mientras que las sesiones prácticas, son en diferentes fincas del concejo de Monasterioguren.

La formación incluye un módulo de creación de empresas para conocer los primeros pasos del proceso de emprendimiento.

NOLA EGITEN DUGU LAN PRAKTIKETAN?

Prestakuntza-fasea arrakastaz gainditzen duten pertsonek **enpresako praktiken** bigarren fase bat garatzeko aukera dute, gehienez ere lau hilabetez, 2027ko uztaila eta abendua bitartean.

Praktikak **ALEKO** Nekazaritza Test Guneko finketako batean egin ahal izango dira, eta ekoizpen-ereduak banaka edo taldean erreplikatuko dira. Hilabete hauetan, prestakuntza ematen duen talde berak tutorizatutako ikaskuntza-esperientzia batean parte hartuko duzu.

Zure praktikak baratzezaintza biointentsiboan egin nahi badituzu, zure lekua Basaldea da, ekoizpen-esperientzia bat garatzeko lursail bat, berotegia eta beste baliabide batzuk eskura izango dituzun.

Zure interesa ekoizpen dibertsifikatua bada, aukera Monasterioguren da. Bertan, ekoizpen dibertsifikatura bideratuta dauden finkak aurkituko dituzu, hainbat azpiegitura dituena baina oraindik garatze prozesuan dagoena..

¿CÓMO TRABAJAMOS EN LA ETAPA DE PRÁCTICAS?

Las personas que superan con éxito la fase de formación tienen la posibilidad de desarrollar una segunda fase de **prácticas de empresa** durante un máximo de cuatro meses, entre julio y diciembre de 2027.

Las prácticas podrán ser en una de las fincas del Espacio Test Agrario **ALEKO**, replicando sus modelos productivos individual o colectivamente. En estos meses participarás en una experiencia de aprendizaje tutorizada por el mismo equipo que da la formación.

Si quieres hacer tus prácticas en horticultura biointensiva, tu lugar es Basaldea donde se dispone de una finca con invernadero y otros recursos para desarrollar una experiencia productiva completa.

Si tu interés es la producción diversificada, la opción es Monasterioguren. Las fincas disponen de una serie de instalaciones de acuerdo con un diseño enfocado a un proyecto integral pero aún en desarrollo.

ETA ZER DA AZKEN FASEA?

Profesionalizatzea erabakitzen baduzu, aholkularitza izango duzu zeure proiektuan behin-betiko instalatzen zaren bitartean, bakarka edo taldean. Aholkulari-taldeak **gertuko babes- eta laguntza-ingurunea eskainiko dizu.**

3. fasea, **profesionalizazioarena,** zuk erabakitzen duzunean has daiteke, betiere prestakuntza arrakastaz amaitu baduzu, eta 2028ko otsailera arte luzatu ahal izango da.

Fase honen helburua da zure proiektu pertsonala garatzea horretarako erabilgarri duzun finkan. Fase honetan, ekintzaileak bere gain hartuko ditu lege-euskarria, baliabide fisikoak eta merkaturatzea.

¿Y QUÉ ES LA ÚLTIMA FASE?

Si decides profesionalizarte, contarás con asesoramiento mientras te instalas definitivamente en tu propio proyecto, individual o colectivamente. El equipo de personas mentoras te ofrecerán un entorno de apoyo y acompañamiento cercano.

La fase 3, de **profesionalización** puede empezar cuando tú decidas, siempre que hayas finalizado con éxito la formación, y podrá alargarse hasta febrero de 2028.

El objetivo de esta fase es desarrollar tu proyecto personal en la finca que tengas disponible para ello. En esta fase, el soporte legal, los recursos físicos y la comercialización corren a cargo de la persona emprendedora.

NOLA EMAN DEZAKZU IZENA?

Deialdia 2026ko urrian irekiko da eta abenduan itxiko da, 2027ko otsailean prestakuntzarekin hasteko. Izena udalaren webgunean edo 945162696 telefonoan eman dezakezu.

Urtarrilaren 13an, 18:00etan, Ignacio Ellacuria zentrora (Castro Urdiales Kalea, 12) joan zaitezke, eta bertan taldeko hitzaldi bat antolatu dugu informazio gehiago emateko edo zalantzak argitzeko.

Ondoren, hautaketa-prozesu bat garatuko da **ALEKO**n. Lehentasuna emango da aldez-aurretik prestakuntza eta/edo esperientzia duten pertsonei, baita Gasteizko tokiko nekazaritza elikagaien sistemaren eragin-eremuan bizi direnei.

¿CÓMO TE PUEDES INSCRIBIR?

La convocatoria se abre en el mes de octubre y se cierra en diciembre del 2026 para comenzar con la formación en febrero del 2027. Puedes inscribirte a través de la página web municipal o llamando al teléfono 945162696.

El 13 de enero, a las 18.00 h, puedes acercarte al centro Ignacio Ellacuría (c/ Castro Urdiales, 12) donde hemos organizado una charla grupal para dar más información o solucionar dudas.

Posteriormente, habrá un proceso selectivo en el que **ALEKO** da preferencia a las personas con formación y/o experiencia previa en el agro, y a aquellas que viven o se proponen vivir en la zona de influencia del sistema agroalimentario local de Vitoria-Gasteiz.

Gehiago jakin nahi baduzu, HITZ EGIN GUREKIN!

Tfnoa: 945162696.

Posta: cea@vitoria-gasteiz.org

Si quieres más información ¡CONTÁCTANOS!

Tfno: 945162696

E-mail: cea@vitoria-gasteiz.org

CROPS4LIFE

ALEKO izeneko ekimena CROPS4LIFE proiektuaren markoan garatutako nekazaritza test gune bat da, Europar Batasunaren finantziazioa duena (ID 101114329)

ALEKO es un espacio test agrario desarrollado en el marco del proyecto CROPS4LIFE, cofinanciado por la Unión Europea (ID 101114329).

CROPS 4LIFE
CONSUME AGROLOCAL, NATURA ZAINDU

Co-funded by the European Union

CoopCycle

SUSTRAIAK HABITAT DESIGN

Centro de Estudios Ambientales
CEA
Ingurugiro Gaietarako Ikastegia

huerta la esmeralda

amaterra
neus monllor

araba álava

ERAMAN KOOP

NEIKER
MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala